



# geurien

4. alea

## euskera hitzarmena



### ELORRIOKO MERKATARIEN ELKARTEA EUSKARARA HURBILTZEKO AHALEGINEAN .....5.or.



### ELORRIOKO BERBALAGUNAK

Elorrioko berbalagunei elkarrizketa eta ikastaroaren balorazioa .....2.or.

### SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Durangaldeko berbalagunen sagardotegiko irteerako kronika .....3.or.

### INTXORTA ASTI ELKARTEA

Intxorta Asti taldekoei elkarrizketa .....4.or.

### IKERKETA-LANA

Elorrioko euskarari buruzko ikerketa-lana .....6.or.

### ZUK EGIN ERDARAZ,...

Nik euskaraz egingo dizut .....7.or.

### BADAKIZU?

.....8.or.

### ZELAN IDATZI?

.....8.or.

# ELORRIOKO BERBALAGUNAK

*Euskararen erabilera areagotzeko eta hizkuntza ohituretan eragiteko hainbat Berbalagun talde sortu ziren iaz. Elorrioko zenbait merkatarik, ostalarik eta zerbitzu-enpresetako langilek ere horietan parte hartzen dute. Taldetxo batekin elkartu gara haien esperientzia nolako den ezagutzeko:*



*“Solemos ir a pasear hasta San Agustín y aprovechamos para tomar un café”*

*“La mayor dificultad para hablar en euskera es nuestra falta de costumbre”*

*“Cuando no tenemos facilidad hablamos en castellano”*

*“Berbalagun es un programa muy adecuado para practicar el euskera”*

## **Nolatan animatu zineten Berbalagun egitasmoan parte hartzera?**

- Nik orain dela hainbat urte euskara ikasi nuen eta ahaztu egin zait, berreskuratzeko baliagarria izaten ari da. Beldurra edo lotsa kentzeko balio du.
- Euskaltegitik niregana etorri ziren eta ideia ona iruditu zitzaidan parte hartzea. Ez nekien horrelako taldeak zeudenik. Ohiturak aldatzeko oso baliagarria da.
- Berba egiteko eman nuen izena.

## **Kontaiezaguzue Berbalagunak elkartzen zaretenean egiten duzuen...**

- Pasiatzera joaten gara San Agustineraino. Bertan kafea hartzen dugu eta buelta ematen dugu. Astelehenetan, 15:00etan elkartu eta 16:00ak bitarte egoten gara hizketan.

## **Zeintzuk dira Elorrion euskaraz hitz egiteko aurkitzen dituzuen zailtasunak?**

- Zailtasun handiena ohitura falta da. Jende gehiena euskaraz hitz egiten etortzen zaigu komertziora. Erraztasunik ez dagoenean hizkuntza aldatu egiten dugu. Normalean, lanean gaztelaniaz aritzen gara. Lanean euskaraz egitea kostatu egiten da, erraztasuna behar da, adibidez, seguru bat euskaraz saltzeko.

## **Euskara praktikatzeko modu egokia al da Berbalagun? Zergatik?**

- Oso egokia da. Astean behin ordu betez elkartzea, euskaraz hitz egiteko ez da gauza handia baina hasteko modu ona da.

## **Merkatariei zuzendutako ikastaroaren balorazioa**

Urtearekin batera amaitu zen, abenduan, merkatariei zuzendutako ikastaroa. Ikastaroaren helburua, batez ere, beraien eguneroko lanean lagungarri izango zaizkien edukiak lantzea izan da: agiri espezifikoak idaztea, euskarazko baliabide informatikoak ezagutzeta...

Giro polita sortu da taldean eta, eguerditako tartetxo hori ikasteko baliatuz, gustura aritu da parte hartu duen zazpikotea. Badirudi, ikastaroak espektatibak ase dituela eta prest agertu dira aurten ere ikasten jarraitzeko. Beraz, 2010ean ere zain izango zaituztegu, iazko ikasle zein ikasle berriak!!

En diciembre finalizó el curso específico dirigido a comerciantes y trabajadores y trabajadoras de empresas de servicios. El objetivo del curso ha sido trabajar aquellos contenidos que pueden ser útiles en el trabajo diario de estas personas.

Se ha creado muy buen ambiente en el grupo y todas las personas han mostrado interés en participar en futuros cursos. ¡Este año también os esperamos!

# DURANGALDEKO BERBALAGUNAK SAGARDOTEGIRA

Urtero bezala, aurten ere sagardotegira irteera antolatu dute Durangaldeko Berbalagunek. Irteera hau aitzakia ona izaten da ingurueta-ko partaideek elkar ezagutzeko eta, jakina, euskaraz eguna pasatzeko. Sagardotegira joateko baldintza da euskalduna izatea edo euskaraz komunikatzeko gaitasuna izatea, behintzat. Azken batean, helburua euskaraz egitea baita.



## Hemen aurtengo irteeraren kronika:

Martxoaren 6a, zapatua, arratsaldeko laurak inguruan Zaldibarren abiatu eta Berrizko Berbalagunak batu ondoren Elorriora heldu da autobusa. Abadiño eta Durangoko kideak batu eta Getariara abiatu gara. Ohitura bihurtu da Getariako geldialditxoak ere. Astigarraga eta Hernaniko giroa beroegia guretzat, eta kostaldean egin ohi dugu arratsaldeko poteoa. Zarautzen, Zumaian eta azken aspaldian Getarian egiten dugu erronda.

Arratsaldeko bost eta erdiak inguruan Getaria mendean hartu dugu (ez dut esan baina autobus-kada bi gara: 100 lagun inguru) eta zazpi eta erdiak arte hor ibili gara bazterrak nahasten. Zorionez, Berbalagun egitasmoetan oso jende



desberdina biltzen da eta bide desberdinak aukeratu ditugu arratsaldea emateko: "merkadilloan" erosketak egiten gelditu dira batzuk. Herria ezagutzeko ibilalditxoak egin dutenak ere izan dira... eta beste batzuk (betikook) betikoari ekin diogu: taberna arteko ibilbide kulturalari. Getariako Txakolina, Gipuzkoako sagardoa, Errioxako ardoa... ez da ezer falta izan. Zazpi eta erdiak inguruan artaldea batu eta sagardotegira abiatu gara: Usurbilgo Urdaira sagardotegira. Bidean jendea larri. Mendian gora hasi gara eta honek ez du batere itxura onik: mendia alde batera, malkarra bestera... eta gu erdian bide estu-estu batean zehar. Bat baino gehiago ikusi dut aurpegi larriz eta errezoka antzean! Sagardotegira heldu bezain laster familiako argazkia atera, eta afaltzera. Afaria edertotxo, sagardoa antzera eta giroa paregabea! Han ibili gara kantuan, dantzan eta jan-edanean sagardotegiko nagusiak, goizaldeko ordu bata bueltan, "bota" gaituenera arte. Hortik aurrerakorik jakin nahi duenak, datorren urtean gurekin etortzea besterik ez du; ez dira edozelan eta edozeini kontatzekoak eta.

También este año el proyecto Berbalagun del Duranguesado ha organizado una excursión a la sidrería Urdai de Usurbil con el fin de practicar el euskera y estrechar las relaciones entre los y las participantes



## INTXORTA ASTI ELKARTEA

### **Zein da Intxorta Asti taldearen helburua eta zer-nolako lana egiten du?**

Gure helburu nagusia da umeak ondo pasatzea beste gai batzuk jorratuz. Hau da euskara, ingurugiroa, errespetua... lantzea baina hainbat dinamika erabiliz. Horretarako, ekintza ugari antolatzen saiatzen gara (eskulanak, jolasak, irteerak...), beti, beraien arteko hizkuntza euskara izanik.

### **Zein da euskararen presentzia Intxorta Asti taldean?**

Euskararen presentzia nabarmena izaten saiatzen gara, hau da, begiraleok dena euskaraz egiten dugu eta ekintzak ere euskaraz izaten dira. Gure umeek beraien artean euskaraz egitera bultzatzen ditugu eta ez dakienari irakasten saiatzen gara.

### **Azken urteotan euskararen bilakaerarik nabaritu duzue?**

Nik uste dut bakoitzak ahal duena egiten duela, eta apurka, gero eta jende gehiagok dakiela euskaraz. Hala ere, beti egoten da "baina" bat: kalean 12 urtetik gorako umeen artean ez da euskara askorik entzuten.

### **Zein da gaztetxoek hizkuntza-joera?**

Gaur egun, umeek beraien artean gaztelaniaz asko hitz egiten dute, nahiz eta batzuk etxean euskaraz egin. Lehen, etxean gaztelania entzuten zuten umeek kalean ere hitzkuntza hori erabiltzen zuten, gaur egun, etxean euskara entzuten dutenek ere gaztelaniaz hitz egiteko joera dute. Gaztetxoei asko kostatzen zaie euskaraz egitea, batez ere, lagun artean.

### **Zer da zuentzat Geurien hitzarmeneko kide izatea?**

Kide izatea, guretzat, alde batetik, euskara sustatzeko egiten dugun lanaren errekonozimendua da, eta beste alde batetik, gure moduan lanean dauden beste talde batzuekin harremana izatea eta esperientziak konpartitzea.

"Organizamos diversas actividades dirigidas a niños y niñas: manualidades, juegos, excursiones, siendo el euskera el idioma de comunicación"

"En la calle no se escucha mucho el euskera entre los niños y las niñas mayores de 12 años"

"A muchos y muchas jóvenes les cuesta hablar en euskera cuando están en cuadrilla"

"Participar en el proyecto Geurien supone un reconocimiento a nuestro trabajo y poder compartir nuestras experiencias con otros grupos"

# ELORRIOKO MERKATARIEN ELKARTEA EUSKARARA HURBILTZEKO AHALEGINEN


Aurtengo ekimenetako bat Elorriko Merkatarari Elkartearekin batera euskararen erabilera-plana diseinatzea izango da.

Dagoeneko, lanean hasi gara: elkartearen hizkuntzaren egoera nolakoa den aztertu dugu eta, horretaz gain, elkar-teak antolatzen dituen ekintza guztietan hizkuntzaren erabilera nolakoa den ere aztertu dugu.

Azterketa egin ostean, euskararen erabilera indartzeko plan-gintza landu dugu.

Aurten, Elorrioko Merkatararien Elkartean junta aldaketa egon da. Hori dela eta, euskararen gaia junta berriarekin ere landu nahi izan dugu.

Oso garrantzitsua da elkarte honek herrian egiten duen lana, eta herrian duen eragina. Beraz, EMERi esker, Elorrioko komertzioan euskara bultzatzea lortuko dugu.



Hona hemen planean jasotzen diren ekintzetako batzuk:

- Komunikazioak, publizitatea, erabiltzen dituen euskarriak... ele bietan argitaratzea eta euskarari lehentasuna ematea.
- Urtero, euskarazko ikastaroak antolatzeko aukera aztertzea.
- EMEko kideen arteko ahozko harremanetan euskararen presentzia areagotzea

Una de las actividades que vamos a realizar este año es un plan de euskera para la Asociación de Comerciantes de Elorrio.

Ya hemos comenzado las labores de diseño: hemos analizado cuál es la situación del idioma en la asociación y en todas las actividades que organiza a lo largo del año y hemos planificado cómo debería de ser el uso del idioma en todas ellas.

Este año, ha habido un cambio en la Junta de EME, por lo tanto, trabajaremos el Plan conjuntamente con la nueva Junta.

# BERRIA

## ELORRIOKO EUSKARARI BURUZKO IKERKETA-LANA

Herri bakoitzak besteengandik bereizten dituen hizkuntza edo elkar ulertzeko modua duela diote. Berba bakoitza ez da erabiltzen modu berean herri baten edo bestean, kasu batzuetan esanahia bera ere aldatu egiten da. Zein ote da ba elorriarrok bereizten gaituen berbetako modua?

Elorrioko euskara ezagutzeko asmotan, duela lau urte toponimiarekin egin zen antzera, Udaleko Euskara Sailak gure herriko euskara bera aztertu nahi du bere osotasunean. Horretarako, ikerketa-lana egingo da eta horren helburu nagusia izango da Elorrioko ahozko ondarea eta herri hizkera bildu eta hedatzea; hizkuntzaz gain, lehengo ohitura eta bizimoduak batuko dira elkarrizketetan eta horiek bizirik mantentzeko ahalegina egingo da.

**Investigación sobre el euskera de Elorrio:** proyecto que tiene como objetivo recopilar y divulgar el patrimonio oral de Elorrio

## EUSKARAZKO LIBURU ETA DISKO GOMENDATUAK

### MARIZIPRIZTIN ARRAKASTATSUA

Moderno, errealista, dibertigarria eta bihotz-altxagarria duzu honako ipuin hau. Bizitza txikitari kontatutako eta sinetsi zituzten ipuinetatik urrun dagoela konturatu diren eta konturatzen ari diren hamaika emakumeen istorioa da Mari Zipriztinena. Testuen ironia eta irudien indar eta adierazkortasuna emakumea eta gizarte-arrakasta lotzen dituzten estereotipoak hankaz gora jartzeko tresna ezin hobea dira. Nunila Lopez eta Myriam Cameros nafarra dira liburuaren egileak. Euskarazko itzulpena Itziar de Blasek eta Mikel Garmendiak egin dute.



**Marizipristin arrakastatsua:** el libro escrito por Nunila Lopez y Myriam Cameros pone patas arriba los estereotipos que unen a la mujer y su éxito social a través de textos irónicos e imágenes con mucha fuerza.



### RUPER ORDORIKAREN "HAIZEA GARIZUMAKOA" DISKOA

Ruper Ordorikaren marka, kalitate mailarik altuenaren laguntzarekin dator, melodia iradokitzaileak, bizitzaren zentzuaz beteriko mezuak... Kantatzeko era zuzena eta erakargarria ditugu oraingoan ere guretzat lagungarri.

Martxoaren 4an, Espainiako Musika Sarietako euskarazko kantu onenaren saria Ruper Ordorikaren Haizea Garizumakoa kantuari eman diote

**Haizea Garizumakoa:** nuevo disco de Ruper Ordorika que recibió el 4 de marzo el premio a la mejor canción en euskera en los Premios de la Música, en Madrid.

# ZUK EGIN ERDARAZ, NIK EUSKARAZ EGINGO DIZUT

Izenburu hori duen artikulu interesgarria irakurtzeko aukera izan dugu Argia astekarian. 2010eko martxoaren 7ko 2221 zenbakian Oinintza Iruretak idatzitako, hain zuzen ere.

Artikulu osoa aldizkari honetara ekartzea gehiegizkoa iruditu zaigu eta horregatik bertan irakurritako pasarte gogoangarri batzuk aukeratu ditugu. Osoa irakurtzeko gogo baduzu, aipatutako aldizkarian aurkitu dezakezu, internet bidez ere irakur dezakezu honako helbide honetan:

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2221/elebitasun-pasiboa?pdf>

“...Euskaraz hitz egin ez baina ulertzen duenari egiten al diogu euskaldunok euskaraz? Berari miha askatzen laguntzen al diogu? Hizkuntzen arteko urruntasunak nolako eragina dauka? Elebitasun pasiboa delakoak aukerak zabaltzen dizkie euskal hiztunei, eta erdaldunei euskarara hurbiltzeko parada eman...”

...“euskal hiztunari euskaraz aritzeko aukerak biderkatzen zaizkio elebidun hartzaile edo pasibo izendatutako horiei ere euskaraz eginez gero. Beste gauza bat da zenbateraino baliatzen ditugun dauzkagun aukerak. **Zenbat aldiz entzun edo esan dugu, “ez du euskaraz egiten, baina dena ulertzen du, e!”**. Eta ez diogu euskaraz egiten...”

...“Ez dakienari euskaraz egitea ez da onuragarria euskara hiztunarentzat soilik, baita erdaldunarentzat eta euskara ikasten ari denarentzat ere. **Euskarara hurbiltzeko modua litzateke ulermena lantzea**, gero poliki-poliki, hitz egiten hasteko, EGA mailako euskara lortu arte zain egon gabe. Beldurak, lotsak... beti mahai gainean ditugu.”...



...“ Durk Gorterrek, soziologo herbeheretarrak esandakoa: “Oso deigarria egin zait hemen, jendeak ingelesa erabili aurretik “my english is not very good (nire ingelesa ez da oso ona)” esaten dizula. Nik uste **jendearen iritzia dela, maila bikaina izan arte, ezin dutela erabili**. Ez da inolaz ere egia. Erabiliz ikasten da!”...

...“Esti Amorrortuk, hainbatekin batera, Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarre-  
rak (Eusko Jaurlaritz, Kultura Saila) liburua idatzi zuen iaz: “Pertsona bat nahiz eta euskaldun oso ez izan, ulertzeko gai bada, zergatik hitz egingo dugu gaztelaniaz? Nik euskaraz eta berak gaztelaniaz saiatu beharko genuke edo gauza errazagoak esateko euskaraz eta zer edo zer ez badugu ulertzen gaztelaniaz eta gero berriro euskarara pasatu. Ez diogu eskolan, baina **lagunartean zergatik ez erabili hizkuntza bat baino gehiago? Itxaron behar badugu koa-drilako denak euskaldun oso izan arte sekula ez dugu euskaraz egingo”...**

## Háblame en castellano, y yo te hablo en euskera

Son varios extractos de un artículo publicado en la revista semanal “Argia” referente al bilingüismo pasivo.

...“¿Hablamos en euskera a aquellas personas que entienden el euskera pero no lo hablan? ¿Les ayudamos a que se suelten a hablar en euskera?...

...“Cuántas veces hemos oído o dicho: no habla euskera, pero lo entiende todo, eh! Y no le hablamos en euskera”...

...“trabajar la comprensión podría ser una manera de acercarse al euskera”...

...“la gente cree que no puede utilizar el euskera hasta obtener un nivel aceptable, nada más lejos de la verdad”...



# BADAKIZU...



**Anboto Irratia Durangalde osoan entzun daitekeen euskarazko irrati bakarra dela? 107.1en Elorrion, eta 99.00n gainerako herrietan! Anboto Irratiak 10:00etatik 18:00ak arteko programazioa dauka eta gainerako orduetan, Durangaldeko euskara hutsezko irratiak estilo guztietako musika eskaintzen du.**

Sabías que Anboto Irratia es la única radio del Duranguesado que puede oírse en euskera? En Elorrio se puede escuchar en la frecuencia 107.1 y en el resto de municipios en la frecuencia 99.00. Anboto Irratia ofrece su programación de 10:00 a 18:00 horas y en el resto de horarios ofrece músicas de todos los estilos.

## ZELAN IDATZI?

### TXEKE ZEHARKATUA:

Hartzailearen  
izen-deiturak

Kopurua zifraz  
emana

**BANKUAREN IZENA**  
Helbidea

**KONTUAREN ZENBAKIA**

2101 0280 6 6 009392\*\*\*\*

Euroak: #30.250#

Miren Letamendi Aldai

Euroak: HOGEITA HAMAR MILA, BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR

Elorrion, 2008ko abuztuaren hogeita hamaikan

TL 11570412 4  
57382920838399940404

Kopurua letraz emana

Leku-izena eta data

Sinadura

### ZENBAKIAK IDAZTEKO MODUA

0	Zero, huts
1	Bat
2	Bi
3	Hiru
4	Lau
5	Bost
6	Sei
7	Zazpi
8	Zortzi
9	Bederatzi
10	Hamar
11	Hamaika
20	Hogei

30	Hogeita hamar
40	Berrogei
50	Berrogeita hamar
60	Hirurogei
70	Hirurogeita hamar
80	Laurogei
90	Laurogeita hamar
100	Ehun
101	Ehun eta bat
102	Ehun eta bi
200	Berrehun
300	Hirurehun
400	Laurehun

500	Bostehun
600	Seiehun
700	Zapiehun
800	Zortziehun
900	Bederatziehun
1.000	Mila
1.200	Mila eta berrehun
1.201	Mila berrehun eta bat
1.984	Mila bederatziehun eta laurogeita lau
1.000.000	Milioi bat
10.000.000	Hamar milioi
1.000.000.000	Mila milioi